



EIBARREN

43. Euskal Jaia



Maiatzaren 23an 22.00etan: **KEN ZAZPI**

Maiatzaren 24an 12.00etan: **EUSKARAZ BLAI**

Maiatzaren 27an 19.30etan: **LORE JOKOAK**

Maiatzaren 30ean 17.30etan: **UMEENDAKO TAILERRAK**

18.30etan: **KALIAN JOLASIAN** 20.30etan: **FILAMENTO FAROLARIA**

Maiatzaren 31n 10.00etan, **ARTISAU AZOKA**

12.00etan, **HERRI KIROLAK** 19.30etan, **ZPEIZ MUKAKI** 22.00etan, **KANTU AFARIA**

Ekainaren 1ean 12.00etan, **EUSKAL JAIKO KALEJIRA**

12.30etan, **ARKU-DANTZEN JAIALDIA** 14.30etan, **HERRI BAZKARIA**

17.00etan, **PATXI ETA KONPAINIA** 19.00etan, **LARRAIN-DANTZA**



Eibarko Klub Deportiboa





43. Euskal Jaiak

eibarren

egitaraua

MAIATZAK 23, OSTIRALA.

-Gabeko 22,00etan "Coliseoan" KEN ZAZPI
Sarrerak interneten eta egunean takillan
Prezioa: 19 €
Antolatzailea: Eibarko Udala

MAIATZAK 24, LARUNBATA

TANTANEZ TANTAN EIBARREN EUSKARAZ BLAI

-12,00etatik 13,00etara giza katea Urkizutik Untzagara.

-13,00etan Ekitaldia Untzaga plazan (jubilatuen egoitzaren aldean).

Antolatzailea: Eibarko Euskaingintza.

2008 

MAIATZAK 27, ASTEARTEA.

LORE JOKOAK EIBARREN: 1908-2008

-Egilea: Antxon Narbaiza Azkue

-Aurkezlea: Andoni Egaña

-Arratsaldeko 19,30etan Portalean liburu digitalaren aurkezpena.

-Ediziogilea: Ego Ibarra batzordea, Eibarko Udala

MAIATZAK 30, OSTIRALA.

-KALIAN JOLASIAN.

Umeendako jolasak familia giroan. Arratsaldeko 18,30etan Untzagan

Antolatzailea: Eibarko Udala

-“ **Filamento Farolaria** ” **Clown, mimoa.**

Xabi Larrea

Publiko guztiak

20:30ean Karpan.

Antolatzailea: Arrate Kultur Elkarte

MAIATZAK 31, LARUNBATA

GOIZEAN

-ARTISAU ETA BASERRITARREN AZOKA 10,00etatik 14,00etara
(Toribio Etxebarria kalean).

Antolatzailea: Eibart elkarte.

EIBARTARRAK

- Ana Orozco, bisutería textil-
- Arrate Bidasoro, aromaterapia.
- Iratxe Unanue, pintura sobre textil para niños.
- Eskulan, vidrio.
- Elexamendi, cuero.
- Marta Irusta, joyería.
- Maite Arriaga, pintura.
- Jesús Belaustegi, cerámica.
- Ione Martínez, pintura sobre textil.
- Igor Unanue, madera.
- Miren Monasterio, bisutería.
- Enrique Cialceta & Jose Luis Vivar, madera.
- Amaia & Argiñe, jabones.
- Nicolás Zurutuza, madera.
- Paulino, madera.
- Amaia Tellaetxe.
- Edorta Murua.
- Maximón, tintes naturales.
- Debako Arte Estola.

KANPOTARRAK

GAIA: LARRUA

- Liliana Martínez, Argentina.
- Larruz, Usurbil.
- Larrua, Bilbao.
- Eskuz, Leintz Gatzaga.
- A Flo De Piel, Iparralde.
- Trock, Areso.
- Alberto González, Gipuzkoa.
- Juan Elgarresta, Gaviria.
- Felix Barbero, Logroño.



BASERRIAK

- Beña
- Barrundi
- Mendigoiti
- Gisasola
- Mandiola Gainekua
- Zelai
- Zumendixa
- Iturrua
- Gorostixa
- Sosola

-Eguerdiko 12,00etan HERRI-KIROLAK + BERTSOLARIAK .

Harri jasotzen "Urdax" 10 urteko mutiko bizkaitarra.
Trontzan: Ana eta Itziar Nafartarrak eta Etxeberria aizpak
bizkaitik.

Aizkolariak.

Bertsolariak: Julen Zelaieta eta Ander Lizarralde

-13,00etan ESKOLEN ARTEKO HERRI-KIROL LEHIAKETA. (La Salle,
Itzio, Mogel-Isasi eta Aldatze).

-Goiz osoan zehar TALOPOSTUA.

Antolatzailea: A.E.K (dena Toribio Etxebarria
kalean)

ARRATSALDEAN

-Arratsaldeko 19,30 kale animazioa.

-ZPEIZ MUKAKI taldearekin dantza tradizionalean
oinarritutako kale animazio umoretsua.

-Gabeko 22,00etan KANTU AFARIA karpan

Sarrerak salgai deportibo eta kulturean (maiatzaren
2tik-25ra)

Prezioak: 12E eta 20E

-23,00etan KANTUAK + ERROMERIA Jainaga eta Narbaizarekin
(karpan)



EKAINAK 1, IGANDEA.

-12.00: EUSKAL JAIKO KALEJIRA Urkizutik Untzagaraino: Arku-dantzen jaialdiko talde guztiak, gaiteroak, joaldunak eta Eibarko, Musika Eskolako eta Jainagaren eskolako trikitilariak.

-12.30: Ezpalak, AKU-DANTZEN NAZIOARTEKO JAIALDIA Untzaga Plazan. Euskal Herriko eta atzerriko arku-dantzen erakustaldia:

- Danzas Burgalesas Justo del Río – Burgos: Arco de Frías eta La Campiña.
- Danzas gremiales de marineros y labradores Xovenes do pobo – Betanzos (A Coruña) – Danza de marineros.
- Grupo de danzas de Chimiche – Chimiche (Santa Cruz de Tenerife): Danza de varas de Chimiche.
- Le Poutou – Toulouse: Les treilles.
- Arkaitz, Añorgako dantzariak – Añorga: Gipuzkoako uztai handien eta uztai txikien dantzak.
- Danzantes de San Lorenzo – Iruñea: Danzas de San Lorenzo.
- Oinatz dantza taldea – Oñati: Oñatiko Corpus dantzak.
- Kezka dantza taldea - Eibar: Ibartzabal arku-dantza



-14.30: HERRI BAZKARIA Untzagako karpan.

Sarrerak salgai Deportibo eta kulturalean (maiatzaren 2tik-25era)

Prezioak: 12E eta 20E

-17.00: ERROMERIA Untzaga plazan PATXI ETA KONPANIA taldearekin.

-19.00: LARRAIN- DANTZA popularra Untzaga plazan.

Oharra: Euria egingo balu, Arku-dantzen jaialdia Coliseoan izango litzateke, eta arratsaldeko ekitaldiak, Untzagako karpan.

IGANDEAN DENOK BASERRITAR JANTZITA!!!!



“Guretzat kontzertuak jai bat dira”

Aurreko hiru diskoetan sekulako arrakasta lortu ostean, ‘Argiak’ diskoa kaleratu zuen Ken Zazpi musika talde bizkaitarrak Durangoko Azokan abenduan. Los Angelesen grabatu eta ekoiztako lan berri honekin Euskal Herriko eta Kataluniako plaza, areto eta antzokiak betetzen ari dira gernikarrak.

- Laugarren diskoak bost hilabete daramatza kalean. Nolako harrera izan du?

Sekulako harrera ona izan du. Durangoko Azokarako atera genuen eta azokan bertan ikusi genuen jendea disko ‘gosez’ zegoela. Egia esan, guk lan handia egin dugu eta beti ipintzen duzu ilusioa egiten duzun hortan, baina ez genuen espero hain azkar jendeak hain ondo erantzutea. Hori zuzenekoetan ikusten da, jendeak oso ondo erantzuten duelako, guretzat kontzertuak jai bat dira eta gozatu egiten dugu. Zentzu hortan oso harro gaude.

- ‘Argiak’ da diskoaren izenburua. Zerbait iradoki nahi izan duzue horrekin?

Bai. Guretako argiak itxaropenak dira. Itxaropenak kolore eta tonalitate asko ditu, horrela, saiatu gara diskoan tonalitate guzti horiek adierazten, oinarri moduan itxaropena hartuta. Soinuaren bidez itxaropena transmititzen ahalegindu gara, baina konturatu gara guri argi hori transmititzen diguna publikoa dela. Gure benetako argiak, izarrak,


eurak dira.

- Nolako da diskoa?

Uste dut diskotik diskora asko arriskatzen duen talde bat garela. Disko bakoitza erronka berri bat bezala hartzen dugu eta ahalegintzen gara pauso berriak ematen. Ez gara musikatik bizi eta horrek nolabaiteko askatasuna ematen digu, benetan nahi duguna, nahi dugunearan eta nahi dugun eran ateratzeko. Aurreko urteetan eman ditugu pausoak, baina pauso berriak ere eman ditugu, eta gure jakinminak eta musika egiteko modu berriak nondik nora dabiltzan ere isaltzen saiatu gara. Hau da, aurreko gauzak bildu ditugu eta etorkizunean egingo duguna ere nabaritzen dela uste dut. Oinarri oso gogorrak eta kantu oso melodikoak, hori da gure ezaugarria.

- Los Angeleseko Rafa Sardinaren estudioan grabatu dituzue abestiak. Nolako esperientzia izan da?

Bai maila pertsonalean, bai talde moduan, oso esperientzia ona izan da. Alde batetik, hemendik irtetzea eta kanpo-



an zerbait egitea, eta kanpoko batek objektibitate edo hoztasun batekin zure lana neurtzea, bere iradokizunekin, oso interesgarria da edonorentzako. Eta bestetik, Rafa Sardinaren mailako gizon batekin lan egitea zoragarria izan da, 18 urte daramatzalako han eta jende askorekin egin duelako lan, sekulako taldeekin. Record Plant estudioan egin genuen lan, garai batean Jimmy Hendrix eta Rolling Stonesek lan egin zuten estudio berdinean.

**- Jarraitzaileen artean baze-
goen beldur antzeko bat Es-
tatu Batuetako esperientzia
honek zuen esentzia aldatu-
ko zuela. Horrela izan da?**

Oso argi geneukan gure izaerari eutsi behar geniola eta produktorearekin berba egin genuen lehen aldian argi utzi genien kontu hori. Abestiak guk konposatutakoak dira, konponketak ere, baina gero Rafak soinu eta teknika aldetik bere zigilua utzi du.

- Rafa Sardinaz gain, beste luxuzko kolaboratzaile bat izan duzue: Joseba Sarrionandia.

Guri beti gustatu izan zaigu abestien letrak guk egitea, onerako eta txarrerako. Baina horrelako idazle potente baten kolaborazioa izatea, esan daiteke berak tekla batzuk ukitzen dituela guk azaldu ezin izango genituenak. Zentzu hortan gure lana asko aberasten duela uste dut eta guretzako ohore bat izan da.

- Datorren astean Elbarren eskainiko duzue kontzertua. Zer aurkituko du bertara hurbiltzen denak?

‘Argiak’ lanaren aurkezpena egingo dugu batez ere, baina aurreko diskoetako abestiak moldaketa batzuk eginda ere aurkituko ditu jendeak. Lan handia egin dugu, ez bakarrik diskoaren sorreran, baita zuzenekoak prestatzen ere. Horrela, argien diseinu oso originala daukagu eta eszenaratzea hobetzen saiatu gara.

EÑAUT ELORRIETA, KEN ZAZPI-KO ABESLARIA





1908ko
Euskal Lore
Jokoak Eibarren



Antxon Narbaiza Azkue

1. Ehunurteurren baten haritik

1.1. Aurrekariak: Iparraldetik Abbadia

1.2. Donostia: Euskaltzale-gunea

1.2.1. Consistorio edo Batzarrearen sorrera

1.2.2. Hiriburutik Probintziara

1.2.3. Lore-Jokoak: Araudi berria

1.2.4. Gipuzkoa mailako eraketa

1.3. Eibarko Lore-Jokoak

1.3.1. Lore-Jokoetako programa:Lehiaketa baten gorabeherak

1.3.2. Herriko Arte eta Industria Erakusketa

1.3.3. Nekazaritza eta Abeltzaintza Erakusketa

1.3.4. Idatz sariketen izaeraz

1.3.4.1. Monografia eta gainerako Sariketak

1.3.5. Elizospakizunak

1.4. Belaunaldi zaharren euskalgintza testimoniaia

1.4.1. Ideologia

2. Eranskinak

2.1. Jaien antolakuntza

2.1.1. Kronologia labur bat

2.2. Egunkarietako artikuluak

2.2.1. “Desde Eibar”

2.2.2. “Eibar”

2.2.3. Borboiak Eibarren. “Los reyes en Eibar”

2.2.4. Eibartarren ekarpena Arte eta Industria erakusketan

2.2.5. “Desde Eibar. Mirando adelante”

2.2.6. “Euskal-itx-jostaldien Batzarrea”

2.3. Hiztegi laburra



Kezka Dantza Taldea
Eibarko Klub Deportiboa

Frantzia, Galizia edo Kanarietako arku-dantzak Euskal Herrikoekin batera Euskal Jaiko dantza jaialdian

Arku-dantzak edo uztai-dantzak izango dira 2008ko Ezpalak dantza tradizionalen nazioarteko jaialdiaren gai nagusia. 2006an antolatu zen lehen aldiz jaialdi hau eta lehen ekitaldi horretan ezpata-dantzak izan zen gaia. 2007an makila-dantzak izan ziren, eta aurten, 2008an arku-dantzak izango dira.

Beraz, arkuekin egindako dantzak ikusiko dira batez ere aurten Ezpalak jaialdian. Etorriko diren talde guztiek gutxienez arku-dantza bat egingo dute. Batzuk arku-dantzekin soilik osatuko dute beren emanaldia. Beste batzuk, arku-dantzak beste zenbait dantza tradizionalen artean ematen dituzte eta sorta hori eskainiko digute.

Frantzia (Toulouse), Kanariak (Chimiche), Galizia (Betanzos), Errioxa (San Asensio), Nafarroa (Iruñea, Monteagudo), Bizkaia (Lanestosa) eta Gipuzkoako (Añorga, Oñati, Eibar) dantza taldeek parte hartuko dut Ezpalak 2008 jaialdian.

Maiatzaren 31an, larunbatean, ospatuko da Ezpalak jaialdia Iruñean eta ekainaren 1ean, igandean, Eibarren, Klub Deportiboak antolatutako Euskal Jaieren baitan.



Maiatzak 31, larunbata
IRUÑEA

17:30 Kalejira alde zaharreko
karraketan barna.

18:00 EZPALAK, Arku-dantzen
nazioarteko jaialdia Burgoen plazan.
Euskal Herriko eta atzerriko arku-dantzen
erakustaldia.

Ekainak 1, igandea
EIBAR

12:00 Eibarko XLIII Euskal-Jaiko kalejira
Urkizutik Untzagaraino.

12:30 EZPALAK, Arku-dantzen
nazioarteko jaialdia Untzaga plazan.
Euskal Herriko eta atzerriko arku-dantzen
erakustaldia.

Danzas Burgalesas Justo del Río (Burgos), Xovenes de Povo (Betanzos),
Grupo de danzas de Chimiche (Tenerife), Le Poutou (Toulouse),
Arkaitez Añorgako dantzariak (Añorga), Danzantes de San Lorenzo (Iruñea),
Oñatiz dantza taldea (Oñati), Grupo de dantzaris de Monteagudo (Monteagudo),
Danzadores de San Asensio (San Asensio), Danzantes de Lanestosa (Lanestosa)
Kezka dantza taldea (Eibar), Duguna dantza taldea (Iruñea)

ANTOLATZAILERAK:



LAGUNTZAILERAK:



Ezpalak, arku-dantzen nazioarteko jaialdia
2008ko maiatzaren 31an Iruñean - 2008ko ekainaren 1ean Eibarren

ezpalak.wordpress.com



Programa

Iruñea. Maiatzak 31, larunbata

17:30ean Kalejira alde zaharretik barna jaialdiko talde guztiak, gaiteroak, txistulariak...
18.00etan Ezpalak arku-dantzan nazioarteko jaialdia Burgoen Plazan. Euskal Herriko eta atzerriko arku-dantzen erakustaldia:

- Duguna Dantza Taldea (Iruñea): Gipuzkoako uztai txikien eta uztai handien dantzak
- Danzas Burgalesas Justo del Río (Burgos): Arco de Frías eta La Campiña.
- Danzantes de Lanestosa (Lanestosa): Danza de los arcos floridos.
- Le Poutou (Toulouse): Les treilles.
- Danzadores de San Asensio (San Asensio): Los arcos.
- Xovenes do pobo (Betanzos) – Danzas gremiales de marineros y labradores.
- Grupo de dantzaris de Monteagudo (Monteagudo): Baile de los Arcos del paloteado de Monteagudo.
- Grupo de danzas de Chimiche (Chimiche): Danza de varas de Chimiche.

Eibar. Ekainak 1, igandea (43. Euskal Jaia)

12.00etan Euskal Jaiko kalejira Urkizutik Untzagara.
12.30etan Ezpalak arku-dantzan nazioarteko jaialdia Untzaga Plazan. Euskal Herriko eta atzerriko arku-dantzen erakustaldia:

- Kezka dantza taldea (Eibar): Ibartzabal arku-dantza
- Danzas Burgalesas Justo del Río (Burgos): Arco de Frías eta La Campiña.
- Danzantes de San Lorenzo (Iruñea): Danzas de San Lorenzo.
- Le Poutou (Toulouse): Les treilles.
- Arkaitz Añorgako dantzariak (Añorga): Gipuzkoako Uztai handien eta uztai txikien dantzak.
- Xovenes do pobo (Betanzos) – Danzas gremiales de marineros y labradores.
- Oñatz dantza taldea – Oñati: Oñatiko Corpus dantzak.
- Grupo de danzas de Chimiche (Chimiche): Danza de varas de Chimiche.

14.30etan Bazkaria Untzagako karpan.

17.00etan Erromeria Untzaga Plazan: Patxi eta Konpania

Duguna Dantza Taldea

Maiatzaren 2a kalea, 9. baxua

31008 Iruñea

Tfnoa: +34 657 33 29 44

duguna@duguna.org

<http://www.dantzan.com/blogak/duguna>

Kezka Dantza Taldea

Portalea - Bista Eder kalea

20600 Eibar

Tfnoa: +34 605 71 14 29

kezka@dantzan.com

<http://www.dantzan.com/blogak/kezka>

ezpalak.wordpress.com



Kezka Dantza Taldea
Eibarko Klub Deportiboa

Ezpalak 2008: arku-dantzak

Jaialdi monografikoen hirugarren ekitaldia dugu honakoa. Ezpata-dantzak izan ziren 2006an, makila-dantzak 2007an eta arku-dantzekin gatoz 2008an. Dantza tradizionalak ikusteko beste modu bat proposatzen dugu Ezpalak jaialdian. Diferentzia eta exotikotasuna ohikoa izaten da folklore jaialdietan, baina horiekin batera elkarrengandik aparte eta urrun dauden dantza tradizionalen arteko antzekotasunak identifikatzera jolastu nahi dugu jaialdi honetan.

Tenerife, Okzitania, Galizia, Errioxa eta Gaztelatik etorritako dantzak Bizkaia, Nafarroa eta Gipuzkoakoekin parekatzeko aukera izango dugu, eta han eta hemen, arku-dantzak egiten direla ikusteaz gain, arku-dantzak egiteko orduan dauden antzekotasun koreografikoak ikusi ahal izango ditugu.

Nazioartean hainbat emanaldi egindako taldeekin batera beraien herritik ia inoiz atera ez diren dantzak ikusteko aukera eskaintzen du Ezpalak 2008 jaialdiak. Goza dezagun dantza tradizionalaz beste behin.





Kezka Dantza Taldea
Eibarko Klub Deportiboa

Duguna dantza taldea – Iruñea (Nafarroa)

Gipuzkoako uztai-handiena eta uztai-txikiena.

Eguna: maiatzaren 31an, larunbatean
Tokia: Iruñean, Burgoen plazan

Duguna dantza taldea 1949. urtean sortu zen Iruñeko udalaren gerizpean. Hiriko ekitaldi ofizialetan parte hartzeaz gain (San Fermin, San Saturnino...), Euskal Herriko dantza tradizionalak dantzatzea eta sustatzea du helburu. Gaur egun 60 bat dantzarik eta musikarik osatzen dute taldea. Dantza eskola ere badu, eta bertan 70 bat ume ari dira dantzan ikasten.

XVII. mendean Gipuzkoan arku-dantzak egiten zirela erakusten diren datuak bildu izan dira. Hala ere, arku-dantzarik ez da ageri Gipuzkoako dantzei buruz J. I. Iztuetak 1824an idatzitako liburuan. Baina bere garaiko beste talde batzuek arku-dantzak egiten zituztela azaleratu du Juan Antonio Urbeltzek. Iztuetaren ikasle izan zen Jose Antonio Olanok irakasten zuen brokel-dantzaren sortan ageri dira arku-dantzak, eta errepertorio hori iritsi da XX. mendera Jose Lorenzo Pujana dantza-maisuaren eskutik.





Kezka Dantza Taldea
Eibarko Klub Deportiboa

Danzas Burgalesas Justo del Río – Burgos (Gaztela)

Arco de Frías eta La Campiña.

Eguna: maiatzaren 31an, larunbatean
Tokia: Iruñean, Burgoen plazan

Eguna: ekainaren 1ean, igandean
Tokia: Eibarren, Untzaga Plazan

Justo del Río izan zen Burgosko talde honen sortzailea eta bere jarri zioten izena taldeari 1968. urtean. Burgosko dantzak herrialdean bertan eta kanpoan erakusteko sortu zuten taldea. Taldeak bildutako 50 dantza inguru dantzatzen dituzte. Herriko zaharrenek erakutsitakoak jaso eta bere horretan dantzatuak aurkezten dituzte dantzak batzuetan. Justo del Río sortzaileak eta beste koreografo batzuek berregituratuak beste batzuetan.

Bi dantza plazaratuko dituzte. Batetik, **Arco de Frias** edo Frias herriko arkuak. Burgoseko iparraldean, Arabatik oso hurbil dago Frias. Antzinako tradizioan oinarritutako dantza da. Herriko santuen aurrean uztaiak jaso eta santuak goratzeko edo haiei bidea egiteko erabiltzen da. Bestetik, **La Campiña** dantza aurkeztuko dute. Urbion mendikatean, XX. mende erdira arte, bertako emakumeek dantzatzen zuten La Campiña. Uztaiekin lotura eta bira zail eta nahastuak egiten dituzte dantzariak.





Kezka Dantza Taldea
Eibarko Klub Deportiboa

Danzantes de Lanestosa – Lanestosa (Bizkaia)

Danza de los arcos floridos.

Eguna: maiatzaren 31an, larunbatean
Tokia: Iruñean, Burgoen plazan

Bizkaiko Lanestosa herrian, abuztuaren 5ean, Elurretako Andra Mariaren omenez egiten dute arku loretsuen dantza ikusgarri hau. Ez da ezagutzen zein izan daitekeen Lanestosako arku-dantzaren jatorria. Ezagutzen diren lehen datuek erakusten dute dagoeneko XVII. mendean dantzatzeko zela, eta gutxienez 350 urtez dantzatu da etenik gabe.

Jaiotzez lanestosarrak diren gizonezkoek baino ez dute dantzatzeko ahal arku-dantza, beti ere, kopuru bakoitian. 80ko hamarkadara arte bederatzi izaten ziren dantzariak, eta harrez gero, kopurua handitzen joan da eta hemeretzi dantzari izatera iritsi dira. Zetazko paper koloretsuz apaindutako arkuaren etengabeko txirikordatzea eta postuen trukaketa eginez zeharkatzen dute herria, aurrera-atzera metodikoa eginez.





Kezka Dantza Taldea
Eibarko Klub Deportiboa

Le Poutou – Toulouse (Okzitania)

Les treilles

Eguna: maiatzaren 31an, larunbatean
Tokia: Iruñean, Burgoen plazan

Eguna: ekainaren leian, igandean
Tokia: Eibarren, Untzaga Plazan

Toulouseko Le Poutou taldea 1956. urtean sortu zen, eta Frantziaren hego-ekialdeko Languedoc eta inguruko eskualdeetako dantzak eta jantziak erakusten dituzte. Hainbat eta hainbat jaialditan —Turkian, Errumanian, Portugalen, Hungarian, Eslovakian, Balearretan, Polonian, Galizian...— ibilitako taldea dugu Le Poutou de Toulouse.

Ezpalak jaialdian egingo dituzten arku-dantzak jatorriz Bako jainko paganoari eskainitakoak omen dira, ardo-mahats uzta oparoa eskatzeko. Dantzon doinuak antzinako musika-tresnekin jotzen dituzte: boharekin, Languedoc-eko oboe (edo graila) eta viellerekin, bodegarekin, txirula, bibolina, klarinetea, soinu kromatiko nahiz diatonikoarekin, danborra eta Lauragaiseko danbor handi edo bonboarekin, besteak beste. Lau ahotsetara moldatutako kantu tradizionalak ematea ere oso ohikoa ei dute.





Kezka Dantza Taldea

Eibarko Klub Deportiboa





Kezka Dantza Taldea
Eibarko Klub Deportiboa

Danzadores de San Asensio - San Asensio (Errioxa)

Los arcos

Eguna: maiatzaren 31an, larunbatean
Tokia: Iruñean, Burgoen plazan

Gizonezkoek soilik osatzen duten taldea da honakoa eta eskualdean hala osatutako bakarra da. San Asensio inguruan dantza tradizioa oso luzea dela aipatzen da eta dantza tradizioak XVI. mendetik gaur arte iraun duela dioten dokumentuak jaso dituzte. Beraz, belaunaldiz belaunaldi mantendutako dantzak ditugu honakoak.

Los arcos izeneko dantza da Errioxako herri honetan arkuekin egiten duten bakarra. Honekin batera hainbat makila-dantza ere egiten dituzte. Arku-dantza, jaietako egun handiko emanaldian egiten den azkena izaten ohi da, agurtzeko balio izaten duena. Nafarroako dultzainen eta danbor doinuen erritmora dantzatuko dute San Asensioko dantzariak.





Kezka Dantza Taldea
Eibarko Klub Deportiboa

Danzas gremiales de marineros y labradores Xovenes do pobo – Betanzos (Galizia)

Danza de marineros

Eguna: maiatzaren 31an, larunbatean
Tokia: Iruñean, Burgoen plazan

Eguna: ekainaren 1ean, igandean
Tokia: Eibarren, Untzaga Plazan

Marinelen dantza hau antzina mareanteen gremioak antolatzen zuen agerraldi ludiko-erlijiosoa da, eta dantzari XVI. mendera arte segi omen dakiok arrastoa, nahiz eta XV. gizaldikoak izan daitezkeen erreferentziak ere badiren. Gremioaren zaindaria San Migel da. Dantza hau, Betanzoseko erriberako biztanleen artean, gaizkiaren gainetik ontasunaren garaipena adieraztera dator.

Komitibak ezpatadun gida-dantzari bat darama, eta beste kontragida bat mazo edo makila batekin, eta bi hauek gainontzeko dantzariak dauzkaten zintaz apaindutako arkuekin lotzen dituzte euren armak. Dantzariak hainbat jira-buelta, eta sugeen eta marraskiloen formen joan-etorriak burutzen dituzte. Taldeak gamachiñoa ere —deabrua— darama bere baitan, eta honek dantzariak zirikatze baina ikusleak bazterrazteko funtzioa ere badu.





Kezka Dantza Taldea
Eibarko Klub Deportiboa

Grupo de dantzaris de Monteagudo – Monteagudo (Nafarroa) Baile de los Arcos del paloteado de Monteagudo

Eguna: maiatzaren 31an, larunbatean
Tokia: Iruñean, Burgoen plazan

Monteagudoko dantzarien taldea 1987an eratu zuten. Herriko bertako dantzak egiteaz gain, batez ere Nafarroako eta orohar Euskal Herri osoko dantzak ere ematen dituzte haien emanaldietan.

1988. urtean berreskuratu zuten Monteagudoko Paloteadoa, hainbat hamarkadetan dantzatu gabe egon ostean. Antzinako dokumentazioa kontsultatu eta ondoko herrietako gisa honetako dantzetan oinarrituz, Nafarroako erriberako dantzen eredia jarraitzen duen zikloa atondu zuten. Antzerkia, hizkera errimatua, musika eta dantza bilduz, satira eta kritika soziala jorratzen duen emanaldia da paloteadoa. Dantzari dagokionez makiladantzek, zinta-dantzak eta arku-dantza batek osatzen dute Monteagudoko Paloteadoa.





Grupo de danzas de Chimiche – Chimiche (Tenerife)

Danza de Varas

Eguna: maiatzaren 31an, larunbatean
Tokia: Iruñean, Burgoen plazan

Eguna: ekainaren 1ean, igandean
Tokia: Eibarren, Untzaga Plazan

Tenerifeko Las Vegas eta Chimiche herrietan dantzaten da Danza de Varas dantza. Belaunaldiz belaunaldi heldutako informazioak zera dio: jatorria Tarragonan eta Katalunian duela eta, garai bateko lurjabe batek erakutsitako dantza dela. Ondare berezi gisa aurkezten dute arku-dantza hori Tenerifeko dantzariak. Gitarrek, bandurriak, lauteak, tipleak, biolinak eta kriskitinek sortutako doinuez dantzaten da Danza de Varas.

Dantza berak bezala taldeak ere belaunaldiz belaunaldi biziraun du. Txandaka gazteek hartu izan dute lekuko berria eta hala iraun izan du taldeak; azkeneko erreleboa 1996. urtean hartu zuten. Egun, 11 dantzari eta 10 musikari osatzen dute taldea. Herriko jaietan plazaratzen dute aipatu arku-dantza; uztailaren 16an, Karmen Egunean, eta, urriaren 12an, Pilar Egunean.



Argazkia: Mataparda



Kezka Dantza Taldea
Eibarko Klub Deportiboa

Kezka dantza taldea – Eibar (Gipuzkoa)

Ibartzabal arku-dantza

Eguna: ekainaren leian, igandean

Tokia: Eibarren, Untzaga Plazan

Kezka Dantza Taldea Eibarko Klub Deportiboaren baitan sortu zen 1958an, beraz, 2008an 50 urte bete ditu. San Joan egunean soka-dantza egin ohi du Untzaga plazan, eta Santa Kurutz, Azitain edo Goimendi auzoetan ere egiten ditu soka-dantzak. 2005ean Arrateko Amaren dantzak plazaratu zituen eta 2008an inauterietan koko-dantzen konpartsa plazaratu du.

1908an, Euskal Jaiak antolatu ziren Eibarren eta Jose Azpiazuk prestatutako dantzari talde batek arku-dantza eskaini zuen. 17 dantzarik (16 dantzari eta buruzagia) egin zuten arku-dantza hura. 1948an, Gregorio Santa Cruz 40 urte lehenago arku-dantzan aritutako bi dantzarirekin harremanetan jarri zen, eta Ibartzabal arku-dantza berregin zuen.





Kezka Dantza Taldea
Eibarko Klub Deportiboa

Danzantes de San Lorenzo - Iruña (Nafarroa) Danzas de San Lorenzo

Eguna: ekainaren leian, igandean
Tokia: Eibarren, Untzaga Plazan

XVI. mendetik XVIII. mendera arteko bidaia proposatzen digute San Lorentzoko dantzariak. Ezpata-dantzak, makila-dantzak eta arku-dantzak. Tradizioari arretaz erreparatu ondoren berreskuratu dituzte. Dultzaina eta metalezko musika-tresnen laguntzaz zortzi dantzari eta Bobo arituko dira. Musika-doinuak ere XIX. mendera artekoak dira.

Iruña dantza taldearen inguruan sortutako taldea da San Lorentzoko dantzariena, 1997. urtean Iruña taldeak 25 urte bete zituenekoa. Gaur egun, talde ezberdinetako dantzariak osatzen dute San Lorentzoko taldea.





Kezka Dantza Taldea
Eibarko Klub Deportiboa

Arkaitz Añorgako dantzariak – Añorga (Gipuzkoa)

Uztai Dantza eta Uztai Handi dantza

Eguna: ekainaren leian, igandean

Tokia: Eibarren, Untzaga Plazan

Donostiako auzoa da Añorga baina, bizitza propioa garatu duen horietakoa. 1926. urtean sortu zuten *Añorgako dantzariak* taldea. Gerora, 1980an hartu zuen *Arkaitz* izena taldeak eta, beranduago, bi izenak batu zituzten gaur egungoa osatzeko. Añorgako Arkaitz dantza taldeak indar berezia izan du beti Gipuzkoako dantzak dantzatzerako orduan. Izan ere, 1926. urtean taldea sortu zeneko garaietan Gipuzkoako dantzak zituen oinarri taldeak. Egun, zazpi probintzietako dantzak jaso eta plazaratzen dituzte.

Gipuzkoako dantzen zikloaren barruan aurkitzen ditugu Uztai Dantza eta Uztai Handi dantzak. Oraingoan mutilek Uztai Txiki dantza plazaratuko dute eta neskek, berriz, Uztai Handi dantza.





Kezka Dantza Taldea
Eibarko Klub Deportiboa

Oñatz dantza taldea – Oñati (Gipuzkoa) Oñatiko Corpus dantzak

Eguna: ekainaren leian, igandean
Tokia: Eibarren, Untzaga Plazan

Gorpuzti egunaren ondoko igandean ospatzen da Oñatin Corpus Christi jaia. XVI. mendean dagoeneko dantzariak Oñatiko Gorpuzti eguneko ospakizunetan parte hartzen zutela erakusten duten agiriak aurkitu dituzte ikertzaileek. Oñatz dantzari taldeko zortzi dantzari eta buruzagi edo maixuak osatzen dute dantzari taldea. Dantzariak apaingarriak (gona motza, bandak e.a.) gorri kolorekoak erabiltzen dituzte eta buruzagiak, urdin kolorekoak.

Dantzariak ostiralean hasten dira lanean, kalez-kale eta auzoz-auzo herri osoan ibiliko baitira dantzan eta puska biltzean. Igandean, prozesioan dantzan joango dira dantzariak eta arratsaldean, plazan, Korpus dantzen agerraldi nagusia egingo dute. San Sebastianen zortzikoa, banakoa, launakoa, zortzikoa, makil-dantza eta arku-dantza dira Korpus egunean egin ohi dituzten dantzak.





Kezka Dantza Taldea
Eibarko Klub Deportiboa



IRUNEA - EIBAR, 2008ko maiatzaren 31an eta ekainaren 1ean

Zpatak

dantza tradizionalen nazioarteko jaialdia

ANTOLATZAILEAK:

LAGUNTZAILEAK:



maiatzak 31
Zapatua
22.00
karpan



XLIII. Euskal Jaiak
2008

EUSKAL JAICO **afaria** 12 euro
kantu 20 euro
ume, ikasle
eta langabetuek
gainontzekoek



sarrerak salga
Deportibo eta
Kulturalean
maiatzaren
25era arte





XLIII. Euskal Jaia 2008

EUSKAL JAIKO **bazkaria**

12 euro ume, ikasle
eta langabetuek
20 euro gainontzekoek

ekainak 1
domeka
14.30
karpan

sarrerak salgai
Deportibo eta
Kulturalean
maiatzaren
25era arte



denok baserritarrez jantzita!!!



Eibarko Klub Deportiboa